



# Korrikalarien festa



ASEGURUAK  
**Ges**  
 Lasarte-Oria Bai!  
Krosarekin bat!

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Erretiroak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



ISLADA EZKUTATUAK

# Memoria historikoari herdoila kenduz

1936an eskuz egindako zenbait lehegailuren piezak topatu ditu Islada Ezkutatuak-ek

**Udaletxe berriko mahai zuri batean jarri zituen ostegun arratsaldean Islada Ezkutatuak taldeak eskuz egindako lehegailu batzuen 22 pieza. Maiatzeko larunbat batean topatu zituzten horiek denak, Txaldatxur mendixkako lubaki batean. 1936koak dira eta urteen poderioz laranja kolorea hartu dute pieza horiek, baina barruan daramaten istorioari eta gure memoria historikoari herdoil apur bat gehiago kendu diote aurkikuntza horren bitartez.**

**T**xaldatxur mendixkan (Zubieta inguruan) hainbat lubaki egin zituzten errepublikarrek 1936ko altxamendu militarrean, garaiko gobernuaren aurka altxatu zirenen erasoei aurre egiteko. Bigarrenen armamentu profesional eta garatuaren aurka (fusilak, morteroak...) imajinario eta eskulana erabili zituzten gubernamentalek, ez baitzuten baliabide material gehiegirik. Gauzak horrela, besteak beste eskuz egindako lehegailuak baliatu zituzten guda horretan, fusilen bitartez zein eskuz botatzekoak.

La 80 urte igaro dira orduetik baina granada horietako batzuk lubakian zeuden oraindik, maiatzeko larunbat batean herriko Islada Ezkutatuak taldeak topatu zituen arte. Udaletxe berrian aurkez-

tu zituen horiek denak ostegun arratsaldean.

“Elkarlanak egiten du posible hau dena. Erakundeek baliabideak jartzen dituzte, eta guk, Islada Ezkutatuak taldeko kideok, lanorduak”. Mailu Arrutiren hitzak dira. Hark azaldu zituen elkartearen azken aurkikuntzaren nondik-norakoak eta gerora jarraitu zuten prozedura: “Garaiko alkate Pablo Barriori jakinarazi genion aurkitutakoa eta Ertzaintzako kideak etorri ziren lehegailuen egoera aztertu eta txostena egitera”, zehaztu du Arrutik. Aipatutakoei eskerrak eman zizkien emandako laguntzagarrik, baita gaur egungo alkate Jesus Zaballosi ere, laguntzen jarraitzeagatik.

Maribel Vaquero Giza Baliabideen zuzendaria izan



Aurkezpen prentsaurrekoan aurkitutako lehegailuen zatiak erakutsi zituzten.

zen aurkezpenean Foru Aldundiaren izenean, eta herri ekimenaren ideia aipatu zuen, Zubieta Herri Batzarreko Itziar Basterrikak ere azpimarratu zuena: “Erakundeok baliabideak ematen ditugu gisa horretako jarduerak burutzeko, baina herriko taldeen bultzadarak gabe hau guztia ez litzateke posible”.

Donostiako Giza Baliabideen zinegotzi Juan Ramon

Vilesek hartu zuen hitza ondoren, aurkikuntzari buruz aritzeko. “Material horrek erakusten du biztanle arrunt batzuek –errepublikarrek– altxamendu militar eta soldadu profesionaleri egin zieten aurre; pieza herdoildu soil batzuk baino askoz gehiago dira elkarteak aurkitutakoak”, adierazi zuen.

## Hodiak, lehegailu

Idea hori hartu zuen ardatz gisa Joxe Agustin Muguruza Islada Ezkutatuak taldeko kideak, aurkitutakoaren jatorriaren berri ematen hasi zenean. “Errepublikarrak eraso zituztenak militar profesionalak ziren, eta armamentu ona zeukaten; hemengoek ahal zutenarekin armak sortu eta horrekin babestu zuten euren lubakia”, zehaztu zuen.

“Gaur egun edozein iturginek” erabili dezakeen hodiak baliatuz granadak egin zituzten, Muguruza aipatu moduan. “Arrasateko Elma SA enpresak ekoizten zituen hodi horiek, harena zen patentea, eta edozein dendatan eros zitezkeen. Guk aurkitutakoak bertan eraikiak izan ziren,

torlojuetan ‘GE1’ eta ‘GE2’ markak topatu baititugu; ‘Grupo Elma’ eta torlojuaren neurria adierazten dute”.

Hodi horiek hartu eta barruan dinamita eta eskura zeukatena sartzen zuten lehegailuen egileek. Muguruza jakinarazi zuen herrian ere bazela gisa horretako armak egiten zituen toki bat, Brunet fabrika ezagunean hain zuzen: “Fabrikako tailerretako batean elkartzen ziren lehegailuak eraiki eta frogak egiteko”. Manuel Chiapuso anarkistak bildu zituen datu horiek denak ‘Comuna de San Sebastian’ liburuan.

1936an zeregin horretarako fabrikatuak izan ziren lehegailuetako batzuk Txaldatxurren geratu ziren; 80 urte beranduago Islada Ezkutatuak taldeak topatu ditu eta, beharrezko tramiteak egin ostean, herrira ekarri ditu.

Jesus Zaballos alkateak jakinarazi zuenez, ostegunean aurkeztutako 22 pieza horiekin erakusketa “egonkorra” egingo du Udalak; udaletxe berriko ‘hall’-ean ikusi ahalgo dituzte aztarnak interesa duten guztiek.



Islada Ezkutatuak taldeko kide Joxe Agustin Muguruza 22 pieza horien jatorria azaldu zuen aurkezpenean.



-  inplanteak eta hartz fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  “invisalign” ortodontzi ikusezina
-  haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko  
**943 366 377**



**RPS: 124/10**

Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta-puntako teknologia eskaintzen dizu

**Laster zuekin!** San Franzisko kalea, 39  
Tolosa 20400

Ola kalea, 10  
Lasarte-Oria 20160  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

## INAUTERIAK

## 'Itsasoa' gaia, 2016ko Inauterietan

## Otsaileko lehen asteburuan izango dira Inauteriak

**Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festak batzordeak jakinarazi du 'Itsasoa' izango dela datorren urteko inauterietako gaia. Otsailaren 6a izango da gai horrekin lotutako mozorroak jantzi eta kalera irteteko eguna, eta 7a Euskal Inauteriena.**



Ipuinetako edo marrazki bizidunetako pertsonaiak izan ziren aurten Inauterietan.

Urri hasieran Udaleko Gazteria eta Festak Batzordea eta herriko hainbat konpartsa bildu ziren datorren urteko Inauterietako gaia zehazteko helburuarekin. aurreko astelehenean eman zuten Udalak erabakiaren berri: 'Itsasoa' izango da gaia.

2016 urteko otsailaren lehen asteburuan ospatuko dira Inauteriak eta beraz, otsailaren 6a bitarte denbora dute herritarrek mozorroak pentsatzen eta prestatzen hasteko.

Gaia zabala da, itsasoko animalia edo itsasorekin zer

ikusia duten pertsonaiak aukera daitezke, hala nola, pirata, sirena, arrain, itsas izar, marmoka edo karramarroa.

"Egun batez itsasoak herriko kaleak ureztatzea espero dugu; herritarrak ekintzetan aktiboki parte hartzea gonbidatzen ditugu", adierazi dute antolatzaileek.

Era berean, norberaren balkoi eta leihoak koloretako

oihal, globo zein gai nagusiarrekin lotutako osagarriekin apaintzera animatzen dituzte lasarteoriatarrak.

**Euskal Inauteria**

Bestalde, Ttakun Kultur Elkarteak herriko hainbat eragilerekin batera urtero antolatzen dituen Euskal Inauteri tradizionalak otsailaren 7an ospatuko dira.

## KULTURA

## Hasi da Irakurle txokoa



Asteartean, urriaren 20an, hasi zuten ikasturte berria Irakurle txokoko kideek eta Sofi Oksan idazlearen 'Garbiketa' lana aztertzeko bildu ziren.

Aurreko urtean bezala, Uxue Alberdi kazetari eta idazleak egingo ditu dinamizatzaile lanak. Hilabete bakoitzeko hirugarren asteartean bilduko dira, aurrez erabakitako liburu baten inguruan solasean aritzeko. Obren idazleak ere gonbidatu ohi dituzte haiekin batera egotera, bi saiotik batean.

Gauzak horrela, azaroaren 17ko saioan Itxaso Martin etorriko da kultur etxera, hark idatzitako 'Ni, Vera' eleberriari buruz hitz egitera.

## IKASTAROA

## Sorosle eta sorospen ikastaroa

Azaroaren 2an, Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berria eskainiko du herriko DYA Gipuzkoak. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da, azaroaren 20 arte, 19:00etatik 21:00etara astelehenetik ostiralera eta Pablo Garaikoetxean izango da.

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gaindituta, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle titulua eskuratzeko aukera izango da.

Matrikularen kostua, ikastaroko txostena bane, 110 eurokoa da. Izena ematen edo informazio gehiago jasotzeko, 943 464 622 telefonora deitu behar da. Ikasle kopurua mugatua da.

## KULTURA

## Ipuinekin amesten



Manuel Lekuona kultur etxeko haur-liburutegia ipuinen munduan murgildu da azken bi asteartean. Urriaren 13n, Pello Añorga ipuin kontalaria izan zen haurren lilura sortu zuena; aurreko asteartean berriz, Kontu Kantoiko lagunak izan ziren haien kontu eta marrazkiekin. Gaur 18:00etan, berriz, Pello Añorgaren txanda izango da. Saioa 4 - 5 urteko haurrei zuzendua dago.

## Ofizio eskola aurten ere Usurbilgo Lanbide eskolaren esku

Lasarte-Oriako Udalak eta Usurbilgo Lanbide eskolak beste urte batez Udalaren Ofizio eskolaren erabileraren lagapena hitzartu zuten.

Jesus Zaballos alkateak adierazi zuenez, "Usurbilgo Lanbide eskolak egiten duen lana instalakuntza hauetan hezkuntza eta praktikak aurrera eramateko da. Lan handia egiten du ikasleak lan munduan txertatzeko".

Patxi Vaquerizo Usurbilgo Lanbide eskolako zuzendariak Udalari lagapena eskertu du, "Lasarte-Orian langabe-



Alkatea eta Vaquerizo Usurbilgo Lanbide eskolako zuzendaria hitzarmena sinatzen.

zian dauden pertsonen onerako izango baita" eta Lanbide eskolak bertan landuko

dituen hiru arlo azaldu ditu: hezkuntza, hezkuntza-orientabidea eta enpresa haztegia.



## Ahal dugu-Podemos Gipuzkoako batzarkideak Lasarte-Orian

Ahal Dugu-Podemos Gipuzkoako batzarkide taldea eta zirkuluen arteko 3. topaketa izan zen aurreko asteartean Villa Mirentxun.

Bertan, alderdiko kideek Batzar Nagusietan egiten

duten lana azaldu zitzaizkien herrietako ordezkariak.

Honetaz gain, bildutakoek ideia eta proposamenak jaso zituzten ere, etorkizunean Batzar Nagusietan aurkeztu ahal izateko.



EGUNEKO MENUA  
BOKATAK  
PLATERAK  
KONTZERTUAK  
DANTZA

abend  
Kafe Antzokia  
LASARTE-ORIA

Pablo Mutozabal 5 - Tel. 943 37 20 89



Geltoki kalea eta Hipodromo etorbidea korrikalarien beroketa eremu.



Lasterketako lehen urratsetan aurreratu ziren faboritoak burua berehala hartuta.



Ohi den moduan, agurra dantzatu zen lasterketa hasi baino lehen.

## Ossama Ifraj eta Ana Ollo garaile Lasarte-Oria Bai! XX Krosean

Lehia estua izan zen bi mailatan. Herritarren berotasuna jaso dute korrikalari guztiek

*Giro ederra izan zen atzo herrian Lasarte Oria Bai! XX. Kros herrikoitari esker. Ohi bezala helduen eta elbarrien lasterketek eman zioten hasiera jaiari. Mila bat korrikalari izan dira aurten irteera marran. Lehia handia izan da bai gizon, baita emakumeen mailan ere. Ibilbideko 10,5 kilometroak egin ostean, Ossama Ifraj, Ana Ollo eta Noblia Pette izan ziren irabazleak. DYako boluntarioek 1 dortsala eraman zuten, 20 urte hauetan eskainitako laguntzagatik.*

Jarraian, elbarrien lasterketari hasiera eman zitzaion. Minutura helduen lasterketako txistua jo zuten antolatzaileek eta zain zeuden 1.050 korrikalariak eman zituzten lehen urratsak.

Lasterketa hasieratik aurre hartu zuten faboritoek, horien artean, Raul Gomez Margallo herritarra.

Lehia estua izan zen talde honetan. Kale Nagusia utzi eta Hipodromo bidera egitean pixkanaka desegin zen bosteko talde hau.

Ossama Ifraj marokoarra, Ignacio Tanco donostiarrak eta Gomez Margallo herritarrek Yeray Varela atzean utzi zuten Hipodromo aldean.

Hipodromoko zubiko bihurgunean, berriz, Ifraj eta Tanco bikotea zihoan lasterketako buru eta segundo batzuetara, hirugarren Gomez Margallo zen.

Horrela mantendu ziren helmurako metro batzuk geratu arte. Ossama Ifrajek erritmoa



Ossama Ifraj eta Ignacio Tanco bikotea Hipodromoko bihurgunean.

### TXINTXARRI

**A**tzo Michelingo kirolgunean, Okendo plazan, zein Geltoki kalean goizeko lehen ordutik Ostadar SKTko kideak lanean egon ziren guztia prest izateko. Izan ere, Lasarte-Oria Bai! XX. kros herrikoia burutu baitzen. Aurten 1 dortsala eraman duten DYako kideak ere Okendo plazan bildu ziren azken jarraibideak jasotzeko.

Michelingo kirolguneko pilotalekura azken momentura arte dortsala hartzeko itxaron zutenak hurbildu ziren. Hainbat korrikalarik ere bero-

ketak kirolgunean bertan egin zituzten. Baina gehienek herriko kaleetan ibili ziren prestaketak egiten, Hipodromo etorbidea eta Geltoki kalean, batez ere.

Giro ederra zegoen eta lasterketaren hasiera iritsi ahala, Geltoki kalea ikuslezt betetzen joan zen pixkanaka.

### Lehen urratsak

Eneritz Balerdi, Oihana Pozueta, Olatz Bardaji, Aiora Belartietia eta Loli Razkinek osatutako dantzari taldeak agurra dantzatu zien parte hartzaileei, txistuan Andoni Iparragirre lagun zutela.

# ETXEZARRETA

# HARATEGIA



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379  
LASARTE-ORIA



Zorionak korrikalari guztiei!

Lasarte-Oria Bai!





Ossama Ibraj marokoarra izan zen gizonetan lehena.



DYAkoko boluntarioek I dortsala eraman zuten. 20 urte hauetan egindako lana eskertu dio Ostadarrek.

## Lasterketa hasieratik aurre hartu zuten faboritoek, horien artean, Raul Gomez Margallo herritarra

azkartu eta Tancok ezin izan zion eutsi. Bakarrik iritsi zen Okendo plazako helmugara, 33:28 denbora eginez.

11 segundora Tanco helmugaratu zen eta hirugarren, Yeray Varela izan zen. Helmugarako zuzenean oñatiarrak Gomez Margallo herritarra aurreratu baitzuen.

### Emakume eta elbarrien lehia

Emakumeen lasterketa lehiatuagoa izan zen. Ana Ollo iruñearra eta Maitane Guerrero hernaniarrak hasieratik hartu zieten aurre arerioei.

Ollok hartu zuen burua eta bide guztian, bata eta bestearen arteko tartea metro gutxitakoa izan zen.

Helmugako zuzenean ere horrela sartu ziren eta iruñearrak erdietsi zuen garaipena, 37:17 denbora eginez. Hamar segundo beranduago iritsi zen Guerrero. Hirugarren Nerea Egia donostiarra izan zen.

Elbarrien mailan, berriz, bost parte hartzaile izan ziren lehian eta bi lasterketa ikusi ahal izan ziren.

Bizikleta zutenek lasterketa burua hartu eta abiada bizian egin zituzten ibilbideko 10,5 kilometroak, 25-30 minututan iritsi ziren helmugara Jon Galarraga eta Iñaki Iraola.

Aulkia zeramatzenak berriz, lasterketa nagusiko korrikalariekin nahastu ziren lehen kilometrotik.

Pette izan zen hasieratik lasterketa burua eta horrela mantendu zen lasterketa amaiera arte. Helmugan 40:53 denbora egin zuen.

Ibilbide guztian herritarren berotasuna jaso zuten korrikalari guztiek, helmugarako azken metroan batez ere.

### Beste sarituak

Bestetik, helmugara iristen lehen lasarteoriatarra senior mailan Jose Luis Delgado izan zen; lehen beteteranoa, berriz, lasterketan laugarren izan zen Raul Gomez Margallo.

Emakumeen mailan, aldiz, senior mailan Alicia Rodriguez eta beteteranoetan, Anabel Eleno izan ziren lehen herritarrek.



Lasaterketa amaitzean, korrikalariak ura eta fruta nahi haina izan zuten.



Sari banaketaren ostean, Kros herrikoian saria lortu zuten korrikalariak talde argazkia atera zuten.

## EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK EGITEN IKASI NAHI DUZU?

Oraindik garaiz zaudel! Ttakun Kultur Elkartek, azaroan ere Euskal Jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa antolatu du. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, bulegotik pasa zaitzake, 943 36 68 58 zenbakira deitu edota [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) helbidera datzi.

Ossama Ibraj Lasarte-Oria Bai! Kroseko irabazlea

## “Lehia oso gogorra izan da azken kilometroetan”

Guztira aurten 1.050 lasterkerik eman dute izena herriko lasterketan. Eta helmuga zeharkatu duten 1.006 korrikalarien artean, Ossama 18 urteko gaztea izan da lehenengoa 33:28ko denbora eginez. Iaz Kamal Zianik egindako 33:26 minutuko markatik oso gertu geratu da. Aipatu behar da atleta martxoan Txinako kros mundialetan parte hartu zuela Espainiako selekzioarekin junior mailan.

Lasterketan egindako denborarekin pozik azaldu da Ossama Ibraj gazte errioxarra lasterketa amaitzerakoan. Neskalaguna ingurukoa du eta berak bultzatuta etorri da lehenengo aldi Lasarte-Oriako kros herrikoi honetara. Ezin estreinaldi hobea egin du, 33:28ko marka lortuta eta lasterketaren azken kilometroan buruan gailenduz.

**Lasarte-Oriako krosean lehenengo aldia izan da?**  
Bai. Logroñon bizi naiz eta neska hemen ingurukoa

dudanez animatu nintzen lasterketan izena ematera. Eta oso pozik nago lortutakoarekin. Ez nuen halako girorik espero eta jendetza pilatzen da ibilbide osoan zehar.

**Lehia estua izan al da?**

Bai oso gogorra izan da. Buru jarri gara bost bat lagun eta ibilbide guztian aritu gara gure artean aurreratzen etab. Azkenean lortu dut aurreratzea baina besteek ere oso lan ona egin dute. Egia esateko, ez nuen halako lehiarik espero.



18 urteko errioxarrak eraman du Lasarte-Oria Bai! krosaren 20. edizioko txapela.

**Gustora zaude lortutako emaitzarekin?**

Bai, oso pozik nago egindako 33:28ko denborarekin. Maila altuan nabil entrenatzen eta banekien aukerak nituela txapela eskuratzeko. Hala ere, lasterketa ezagu-

tzen ez nuen, ibilbidea etab. hor neukan batez ere zalantza.

**Ignacio Tanco donostiarrekin egin dituzu azken metroak...**

Bai, momentu batean atzean

ere geratu gara biak baina gorputzari buelta eman diogu. Gorputza indartsu sentitu dut nik azkeneko kilometroetan eta hor bai sinistu dut aurrera egin eta lehenengo postua nirea izango zela.

Ana Ollo Lasarte-Oria Bai! Kroseko lehenengo emakumea

## “Uste baino denbora hobea egin dut”

Estreinakoz etorri da gurera ere Ana Ollo Iruñetik. Korrikalariak denbora bat egin du asko entrenatu gabe lesio batek behartuta. Buruan Behobia du helburu eta indarrez nola dabilen neurtzeko, animatu zen atzokoan Lasarte-Oria Bai! krosean parte hartzera. Azkenean, parte hartu zuten 181 emakumeen artean, lehenengoa sartu zen 39:17ko denbora eginda.

Uste baino emaitza hobea lortu zuen atzokoan Ana Ollo lasterkariak. Gustora aritu zen herriko krosean eta bereziki eskertu zituen ibilbide osoan zehar jasotako animo eta txaloak. Harrituta geratu zen herrian sartu bezain pronto, aurkitutako jai giroarekin.

**Nola joan da lasterketa?**

Ba uste baino askoz hobeto joan da lasterketa, pentsatzen nuena baino denbora hobea egin dut. Harrituta nago herri osoan dagoen giroarekin eta asko gustatu zait.

**Zer iruditu zaizu ibilbidea?**

Ibilbidea berez gogorra da.

Aldapatsua da zenbait tartetan eta baditu zailtasunak. Baina pertsonalki oso ondo etorri zait halakoa izatea. Behobia-Donostia prestatzen ari naiz eta horrelako zerbait behar nuen. Iaz hirugarren egin nuen lasterketa horretan eta maila berean aritu nahiko nuke, hamar edizio baino gehiago dira parte hartzen eta.

**Orduan oso prestatuta etorri zara?**

Egia esan ez. Oso kilometro gutxi egin ditut azken asteetan. Lesio bat izan nuen eta oraindik guztiz sendatu gabe



39:17ko marka lortu du gailendu den lehenengo emakumeak.

nago. Hori dela eta, indarrak neurtu nahi nituen.

**Bigarrenari 10 segundu atera dizkiozu...**

Maitane ezagutzen dut eta bera ikustean, pentsatu dut aukerarik ez nuela lehenen-

goa izateko. Oso indartsu dabil bera eta atzetik ikusten nintzen baina azkenean, gorputzak ondo erantzun eta indartsu aritu naiz. Gainera herritarren animoek pila lagundu didate ibilbide osoan.



Zatoz gurekin  
gosaltzera!



Pastelak  
Opilak  
Pastak  
Ogia  
Bonboiak  
...

Zorionak korrikalari guztiei!

Hipodromo etorbidea 3, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 61 76 - labegoxo@euskalnet.net



## Lasarte-Oria Bai! Kroseko Elbarri taldea

## “Antolakuntzak oso ondo zaintzen gaitu”

*Guztira bost izan ziren atzokoan parte hartu zuten kirolari elbarriak. Bi modalitate ezberdinetan aritu ziren. Taldeko hiruk ibilbidea aulkiaren gainean osatu zuten, beste bik handbike edota bizikleta antzekoetan. Azken hauek helmugara iristen lehenak izan arren, atletismo proban aulki gaineko saikapena soilik osatu zen. Horrela Noblia Pette izan zen txapela jantzi zuena.*

Urtero aulki gainean zein handbike delakoetan zenbait lasterkarik osatzen dute Lasarte-Oria Bai! Krosa.

Eurek esan bezala, oso pozik etortzen dira antolakuntzaren aldetik harrera bikaina baita. “Hamaiketako prestatzen digute eta lasterketan ere laguntzaileak beti gertu izaten ditugu. Horrelako gutxi daude eta eskertzekoa da benetan hemen azaltzen diguten begirunea”.

Aurtengoan hiru izan ziren probako 10,5km-ak aulki gai-

nean burutu zuten kirolariak. Beste bi ordea, handbike-ean Jon Galarraga eta Iñaki Iraola.

Horrela izanda, Noblia Pette sartu zen lehenengoa aulkiko lasterkarian artean, 40:53ko denbora eginda. Honek lasterketa ondo ezagutzen du eta gustura aritu zela aipatu zuen. “Ibilbidean zehar arazorik ez dugu izan eta alde pixkat atera ahal izan diet lagunei”. Izan ere, bere atzetik eta hauek bai alde oso gutxirekin, sartu ziren Pierre Murua 44:47ko denboran



Urteroko hitzordua da taldearentzat herriko krosa, hala ere, batzuentzat lehenengo aldia ere izan zen.

ibilbidea eginda eta Mikel Goikoetxea 44:48koarekin.

Hala ere, ikusleek lehenago helmuga pasatzen ikusi zituzten handbike modalitate-

ko bi lagunak. Hauek ziztu bizian egin zuten ibilbidea, aipatu bezala “ibilbidean aldapak baino koxkak dira arriskutsuagoak. Badenak ere

dexente zeuden eta guretzat bada erorketarako arriskua izan ere, behean jotzen baitugu eta kontu handiz ibili behar baikara”.

## Raul Gomez Kroseko lehenengo herritarra

## “Hirugarren postuak ihes egin dit”

*Raul Gomez Margallo herritarrak ezin izan zuen lehenengo hiruen artean bukatu. Indartsu hasi eta lasterketa buruko taldetxoan egon arren, ezin izan zuen helburua bete. Hala ere, 411 herritarren artean, bera izan zen lehenengoa 34:07ko denbora eginda.*

Raul Gomez herritarrak indartsu hasi zuen lasterketa. Herritar baten eskuetan ere ikusi zuten askok krosaren txapela baina ezin izan zuen lortu.

### Nola joan da lasterketa?

Ba indartsu hasi naiz baina gero korrikalari gazteen aldean ‘txispa’ faltan izan zait hirugarren postuan helmugaratzeko. Muturren aurrean

ihes egin dit, iaz baino indartsuago egon arren. Hurrengoan berriz saiatu behar.

### Hala ere, pozik markarekin?

Bai bai, oso pozik egindako lanarekin. Jendeak piloa animatu nau eta erantzun egin nahi nuen baina gorputzak ez dit gehiagorako eman. Beste batean izan beharko du.



### Hurrengo helburua?

Behobia egingo dut baina ez dut gehiegi prestatu beraz disfrutatzen joango naiz. Saiatuko naiz iazko marka mantentzen.

## Anabel Eleno Herriko lehenengo emakumea

## “Ez dut nire onena eman”

*Anabel Eleno herritarra ez zegoen guztiz asetuta egindako lanarekin. 44:37ko denborarekin, datorren urtean hobetzea du buruan.*

Emakumeen artean 10. postuan sartu da lehenengo herritarra, Anabel Eleno. Urte pila daramatza herriko lasterketan parte hartzen baina atzokoan ez zen gustura geratu.

“Ba ez nago pozik egindako denborarekin, ez dut nire onena eman. Akaso adina izango da baina minutu bat gehiago egin dut”. Datorren urtean arantza kendu beharko



duela esaten zuen Elenok. “Maratoia prestatzeko ohiko entrenamenduak egin ditut eta ez dakit zer gertatu zaidan, nire buruarekin pixkat haserre nago baina tira beste behin, kriston giroa herrian eta animo pila jaso ditugu”.

# kimma



Zorionak korrikalari guztiei!

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197  
LASARTE-ORIA

Errepideko, BTT  
eta triatloiko  
txirrindulariaren  
biomekanika

masaje-lekua



Goyo Martin  
Xabier Carbayeda









Ostadarreko kideen jarraibideak entzun zituzten gaztetzok, hasi aurretik.



Ikusleen berotasuna jaso zuten XV. Korrika Festan parte hartu zuten neska-mutiek.



Lasterkariak irribarretsu bete zuten zegokien ibilbidea.



Jalguneko lagunek irabiakiak, ura eta dominak banatu zituzten helmugan.

# Mugarik gabeko festa

## Guztira 950 gaztetzok hartu dute parte aurtengo Kros txikian, orain arteko marka guztiak hautsiz

**Aurtengoan ez dio mugarik jarri Ostadar SKTk XV. Korrika Festako parte-hartzaile kopuruari, eta orain arteko marka guztiak hautsi dituzte: 2000 eta 2009 urteen artean jaiotako 950 gaztetzok egin zuten lasterka atzo Geltoki kalean zehar, giro ederrean. Giroaz hitz egiten hasita, Nagusien Krosak bezainbesteko ikusmira piztu zuen haurrenak eta ehundaka guraso eta lagun aritu ziren hesietatik animoak ematen. Mugarik gabeko festa izan zen atzokoa gaztetzontzat.**

**N**agusien Krosa eta ondorengo sari bana-keta amaitu bezain pronto hasi zen XV. Korrika festa. Hankei eragiteko gogo biziz iritsi ziren 5 eta 14 urte arteko neska-mutlak irteera lerrora. Lanak izan zituzten Ostadarreko kideek ordena mantentzeko, lasterka hasteko irrikitan baitzeuden gaztetzok guztiak.

Ohi bezala, adinen arabera banatu zituzten antolatzaileek lasterkari guztiak, eta horrela aritu ziren korrika Geltoki kalean barrena, gura-

so, lagun eta ikusle guztien txalo eta animoak jasoz.

Gaztetzoenek ez zioten birarik eman behar izan kaleari, Frutas Ruiz parean hasi eta helmugara joan ziren zuzenean. Adinez koxkortuago dauden neska-mutiek aldiz bat, bi edo hiru bira eman zizkieten, jaiotza urtearen arabera.

Urtero gertatzen da erorikoren bat edo beste baina, horretaz aparte, orokorrean arazorik gabe bete ahal izan zuten ibilbidea haurrek. Denek jaso zuten ikusleen

berotasuna, baina azkeneko postuetan sailkatutakoek txalo-dosi extra bat jaso zuten, ohikoa den moduan.

### Ahaleginari ordaina

Hainbat eta hainbat neska-mutiek irribarretsu egin zuten lasterka Korrika festan, baina helmugara iristean are gehiago zabaldu zitzairen, bertan zain baitzeuzkaten Jalgune elkarteok lagunek prestatutako irabiaki, ur botila, fruta eta indarrak berreskuratzeko beharrezko guztiak. Horrekin batera, domina bat jaso zuten parte hartzaile guztiek lasterketan zehar egindako ahaleginagatik.

Era berean, lasterketa bakoitzean lehenengo postuetan sailkatu ziren lasterkariak garaikurrak jaso zituzten krosaren antolatzaile eta babesleen eskutik, Okendo plazako oholtzan.

aldizkariak  
esku-orriak  
kartelak  
egutegiak  
katalogoak  
papeleria  
agendak  
koadernoak  
karpetak  
logotipoak

**INPRENTA**  
**DISEINU**  
**GRAFIKOA**

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus





Bolondresak ere hainbat kilometro burutu zituzten atzokoan.



Ikusmira handia sortu zuen herritarren artean Kros txikiak.



Geltoki kalean barrena egin zuten lasterka 5 eta 14 urte bitarteko 950 korrikalari gaztek.



Barruan zeramaten guztia eman zuten atzo gaztetxoek.



Izenari ohore egin dio Korrika Festaren XV. edizioak.

Guere, L-Oko krosaren alde!

txintzarri

Askatu mingaina

earra! BERTSO ESKOLA

Kultur Elkartea

Ttakun

amaraun

SAIETE CLUB

WREKZUGAZIN

Kadrillate

Lasarte-Oria Bai! Zorionak korrikalari guztiei!

# Krosean ateratako irudi gehiago



Beste urte batez, eskoba taldeak azkenengo lasterkariaren aldamenean burutu zuen krosa. Argazkia atera zuten amaitu eta gero.



Gogotik ospatu zuen Ossama Ifraj atletak atzo Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian lortutako garaipena. Bi besoak zabalik zituela, hegazkinarena eginez sartu zen helmugara.



Lasterkari batek baino gehiagok ahaideen laguntza izan zuen 10 kilometro eta erdiko ibilbidea amaitzeko.



Ezinbestekoa da ongi berotzea lasterketari ekin aurretik.



Jose Luis Juarz 'Ganbers' zenaren hainbat lagunek haren omenez egin zuten lasterka atzo. Hasi aurretik argazkia atera zuten haren ama eta semearekin batera. Bestalde, Xirimiri elkartearen aurkako aldarria ere ikusi ahal izan zen Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian.



Gure kafeaz betetako kapsulak

Nespresso kafe-makinekin bateragarriak



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...



### KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
20160 LASARTE-ORIA



Korrikalariek ikusleen animoak jaso zituzten ibilbidean zehar.



Fruta gozoa janez berreskuratu zituzten indarrak korrikalariek.



Argazki eta bideo guztiak txintxarri.eus eta facebook orrialdean



Lasterkari beteranoak ere animatu ziren atzoko krosean korrika egitera.



Raul Gomez Margallo izan zen helmuga zeharkatu zuen lehen lasarteoriatarra; laugarren postuan geratu zen.



Jon Altuna herritarrak jarri dio ahotsa aurtengo krosari.



Atzoko egun berezia dantza eginez amaitu zuten herritar ugari. Ttakunek, Erketzek eta Kukukak antolatzen duten plaza dantza saioa egin zuten arratsaldean Okendo plazan; ikasturteko lehena izan zen.



Lasarte-Oria Bai Krosarekin bat!

# Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak      Barruko berrikuntzak

Estalkien berriztatzeak      Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

## Agenda

Gaur, 18:00etan haur liburutegia



### Ipuinaren ordua

Pello Añorga idazlearekin ipuin kontalari saioa izango da gaur haur liburutegian. Hilabete honetan hainbat izan dira antolatutakoak adin ezbedineko haurrei zuzenduta. Kasu honetan, 4 eta 5 urteko umei zuzenduta ko saioa izango da. Saiora umeak bakarrik sartuko dira eta honetara sarrera doan izango da.

14:00etan, bazkaria Elebeltzen. Txartelak Elurtza, Xiri, Ilargi eta Elebeltzen bertan. Ondoren, karaokea egingo da. 22:00etan, Kontzertuak: The Garax, Desegin, Txili Pipar eta DJ Zaballos.

### Azoka

OKENDO PLAZA

Ostiraletik,

Gastronomia eta artisautza azoka "Haiek bai urteak 1970 /80".

### Proiektzioa

MANUEL LEKUONA

Ostirala 19:30ean,

The Royal Ballet Royal Operan egindako Romeo eta Julieta balletaren proiektzioa. Sarrerak aurrealmentan 7,50 euro, egunean 9 euro.

## Lasarte-Oria

### Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Larunbata, 20:00etan

Lasarte-Oria dantzan XI-ko azken saioa izango da "Refugiada poetica" ikuskitzuna Claire Duceaux-ek gidatuta. Sarrera Interneten 5,50 euro.



### Musika

JALGI

Larunbata, 23:00etan

Makala Dj-aren emanaldia izango da. Sarrera doan.

### Ikastaroa

ELEBELTZ

Asteartea, 18:30ean

Sorkuntza tailerrak izango dira: antzerkia, musika, malabarak, eskulak.

### Solasaldia

ELEBELTZ

Ostirala, 18:30ean

'Kortxoenea: iraultza sortzea delako' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

### Udazken Fest

ELEBELTZ

Larunbata,

12:00etan, poteoa Okendo plazatik Rezibatukadarekin.

### Zinea

MANUEL LEKUONA

Igandea 17:00etan,

"Pinochio y su amiga Coco" filma haurrentzako saioan. Sarrera 3,80 euro

MANUEL LEKUONA

Igandea 19:30ean,

"El desconocido" filma helduen zinema saioan. Luis Tosar da Dani de la Torre zuzendariaren lanean protagonista. Sarrera 5,50 euro.

## Herritarren txokoa

### 63an jaiotakoaren afaria

Aurten ere 63an jaiotakoaren afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko. Menua 36 eurokoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera. Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

### 65ean jaiotakoaren afaria

1965ean jaiotakoaren afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiagorako Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

### 55ean jaiotakoaren afaria

1955ean jaiotakoaren afaria antolatuko da azaroaren 21an. Informazio gehiago eskuratzeko deitu zenbaki hauetara Begoña 678 90 34 99, Mariano 658 70 64 73 edo Mariasun 627 70 12 41.

### Errigorako saskiak eska daitezke

Errigorako eskaintzan 15 ekoizleren produktuak bildu dituzte 50 euroko saskitan; ardo beltza botila bat (Azpea, Lezaun edo Mendiko), litro erdiko oliba olio birjina estra botila (Bardea, Castillo de Ablitas, Ekolo edo La casa del aceite), melokotoia almibarrean (Almanaque), orburuak (Ebron edo Maria Jesus), potxak (La Churta edo Maria Jesus), kardua (Maria Jesus edo Pedro Luis), mahats zukua (Ekolo), almendrak (Nuestra Señora del

Rosario), pikillo piper ontzi txikia (Iturri), pikillo piper ontzi handia (El Escolar edo Meleta), zainzuriak (Iturri), melokotoi marmelada (Pedro Luis) eta pikillo piper untapana (Almanaque). Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da jasotakoaren %25, Lodosa eta Vianako ikastolei, Erriberako AEK eta D eredia Nafarroa osora hedatzeko ekimenetara hain zuzen ere. Saskien eskaera egiteko aukera dago Ttakuneko bulegoan, Landaberri DBH institutoan, Landaberri Garaikoetxean, Landaberri Zubietan, Michelin lantegian, Munterri AEKn eta lametza lantegian azaroaren 8a bitartean. Saskiak banatuko dira azaroko azken astean Goikale 8 zenbakiko lokalean.



Jose Antonio Ormazabal Sasiain

urriaren 17ean, 77 urte zituela.

GOIAN BEGO

Ttakun Kultur Elkarteko

kide garen guztiok

minean lagun eta

besarkada estu bat senideei.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

#### txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika

publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguroa, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

BERTSO



KONTU



TXISME

AFARIA



Mailu Arruti

### AZAROAREN 6an, 21:00etan, Arrieskalleta Elkartean

Menua: Labeleko txerrikiak, kalabaza krema, txerri masailak, flana, izozkia eta kafea

Txartelak Jalgin egongo dira eskuragarri 20€-tan

\*Afarira joateko ez dago Arrieskalletako bazkide izan beharrik



# Jalgi

KAFE-ANTZOKIA

Geltoki kalea behea  
Lasarte-Oria

Urriak 31 larunbata,  
23.00etatik aurrera...  
**DJ MAKALA!**

*Pintxoak, musika... eta giro ederra!*



# Zein leiho jarri erabakitzeke orduan zalantzak dituzu?

Materialak, prezioak, zaratak, kristalak, tenperatura, hezetasuna, haizea... Dena da garrantzitsua eta zuk emaitzak ikusi nahi dituzu zure etxerako leiho hoberenak zeintzuk diren jakiteko.

**Orientatuko zaitugu**  
inoiz egin bezala



# ALCAR

## VENTANAS

Tel: **943 37 78 68** tienda@ventanasalcar.com  
ventanasalcar.com facebook.com/VentanasAlcar

**ERAKUSKETA** Plaza Oriamendi, 2 (Lehengo Doble J) 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa  
**TAILERRA** Ibaiondo, 4 semisotano 5-A 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa



**ALCAR**  
Lasarteko  
**KROSS**arekin!



# Maitete

# BETELU

- B** Aseguruak
- B** Etxebizitzen administrazioa
- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliaria zerbitzuak

**ZORIONAK**  
korrikalari guztiei!



Lasarte-Oria Bai!

**Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria**  
**Tel.: 943 364886 • Faxes: 943 372117**

